Mailegu pertsonala, erreserbak eta berritzeak

Mailegu pertsonala

Liburutegien funtsak, maileguan eman ezin direnak salbu, instalazioetatik kanpo irakurtzeko eska daitezke. Zerbitzu hau erabiltzeko, erabiltzaile txartela erakutsi behar da. Mailegu pertsonala erabiltzaile guztiendako zerbitzua da.

Aldi berean 7 dokumentu izan daitezke maileguan, gehienez.

Liburutegi bakoitzean honela mailegatuko dira:

- 3 liburu 21 egunerako; 2 aldiz ere berritzen ahalko da mailegua aipatu epealdirako, non ez dituen beste erabiltzaile batek erreserbatu.
- 2 aldizkari 7 egunerako; 2 aldiz ere berritzen ahalko da mailegua aipatu epealdirako, non ez dituen beste erabiltzaile batek erreserbatu.
- 4 bideo, CD-ROM, DVD, CD, 7 egunerako.

Dokumentuak itzultzeko epeak betetzen ez badira, zehapena jarriko da: egun bat mailegu-txartela erabili gabe, atzeratutako egun eta dokumentu bakoitzeko. Dokumenturen bat galdu edo hondatuz gero, berria ekarri beharko da. Galdutako dokumentuaren jabea den liburutegiak erabakiko du zer ekarri beharko den galdutako edo hondatutakoaren ordez.

Liburuak berritzea

Mailegu-zerbitzuaren zerbitzu osagarri modura, maileguan emandako liburuak berritu daitezke: horretarako, erabiltzaile txartela erakutsi behar da.

Epea berrituz gero, liburuen mailegu-aldia luza daiteke, baldin eta beste erabiltzaile batek erreserbatu ez baditu eta epe-berritzea mailegua bukatu aurreko 5 egunean eskatzen bada. Liburuak edo aldizkariak birritan berritu daitezke, gehienez ere.

Liburuak Interneten bidez ere berritu daitezke. Zerbitzu hau erabiltzeko, beharrezkoa da erabiltzaile txartela izatea eta online katalogoak (OPAC) ematen dituen zerbitzu pertsonalizatuetan sartzea. Sisteman bere burua identifikatzeko, erabiltzaileak datu hauek eman beharko du:

- Irakurle zenbakia
- Pasahitza

Pasahitza emanen dizute erabiltzaile gisa inskribatzen zarenean. Lehendik erabiltzailea izanik zein den ez badakizu, liburutegian eska dezakezu.

Liburuak erreserbatzea

Mailegu- zerbitzuaren eta berritze-zerbitzuaren zerbitzu osagarri modura, maileguan beste norbaiti emandako liburuak erreserba daitezke. Horretarako, erabiltzaile txartela behar da.

Aldi berean bi liburu eduki daitezke erreserbaturik, norbaitek mailegatuta baditu.

Liburuak Internet bidez erreserba daitezke. Zerbitzu hau erabiltzeko, beharrezkoa da erabiltzaile txartela izatea eta online katalogoak (OPAC) ematen dituen zerbitzu datu hauek eman beharko ditu:

- Irakurle zenbakia
- Pasahitza

Pasahitza emanen dizute erabiltzaile gisa inskribatzen zarenean. Lehendik erabiltzea izanik zein den ez badakizu, liburutegian eska dezakezu.

Interneten zerbitzuetan sartzeko eta haiek erabiltzeko arazoren bat baduzu, jar zaitez harremanetan liburutegiarekin. Zure arazoa ahalik eta lasterren konpontzen saiatuko dira.